

INFORMAZIOA CHILLIDA LEKUN KONTZERTUAZ MODU EROSO ETA SEGURU BATEAN GOZATU AHAL IZATEKO:

Sarbidea eta aparkalekua:

Kontzerturako sarrerak museorako sarbide-eskubidea ematen du, egun osoan zehar museoa lasai bisitatu ahal izateko. Kontzertua 19:00etan hasiko da. Chillida Lekuko aparkalekuak edukiera mugatua du, eta betetzen denean ibilgailuak Galarretako aparkalekura bideratuko dira. Galarretatik museora doan joateko autobus bat egongo da 18:00etatik 19:00etara, eta bueltan 20:30etik 21:00etara (museoa nahitaez utzi behar den ordua).

Taberna zerbitzua:

Lurra Café irekita egongo da kontzertuaren aurretik eta ondoren, eta afari zerbitzu bat eskainiko du kontzertuaren ondoren (aldez aurretik erreserbatu beharrekoa).

Ezingo da kanpotik janaririk edo edaririk ekarri.

Segurtasun eta higiene neurriak:

Gogoan izan maskara beti jantzita eraman behar dela nahitaez. Manta bat edo estera bat ekartzea gomendatzen dizugu, eroso-eroso goza dezazun kontzertuaz; gainera, hamaka kopuru mugatu bat egongo da bertaratzen direnentzat, eskuragarri iriste-ordenaren arabera.

Esertzeko leku bana emango zaie bertaratuei, segurtasun-distantzia mantentzen dela bermatzeko.

Arropa eta oinetakoak:

Gure gomendioa da, ilunabarrean tenperatura pixka bat jaitsi ohi denez, bero egoteko arropa ekartzea, baita oinetako erosoak ere, museoko zelaietatik ibiltzeko.

Zure zain gaude Chillida Lekun oso kontzertu berezi batez gozatzeko.

Edozein zalantza edo kontsulta baldin baduzu, jar zaitez gurekin harremanetan reservas@museochillidaleku.com / infojazz@donostia.eus